

## Urtarrilean, Berrikuntza didaktikoari buruzko masterra abiaraziko da

2010/09/16

Unibasque eta ANECA kalitate agentzien onarpena jasota, 2010-2011 ikasturtean master berri bat jarriko da martxan Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean: **“Berrikuntza Didaktiko metodologikoko Proiektuen garapena Hezkuntza Erakundeetan”**.

Master honetan estrategiak landuko dira, berrikuntza didaktiko metodologikoki lotutako proiektuak sortzeko eta kudeatzeko, eta interbentzio baliabideak landuko dira.

### Nori zuzendua

Masterra **hezkuntzan diharduten profesionalei** zuzenduta dago: hezkuntza zentroak, hezkuntza administrazioa eta hezkuntzan diharduten beste erakundeak, hain zuzen, zeregin ezberdinetatik berriztapen-proiektuak sustatu, diseinatu eta kudeatzen dituztenak. Masterra 2011ko urtarrilean abiarazi eta inskripzio epea 2010ko urrian hasiko da.

### Metodologia

Master honek **ikaslea izango du ikaskuntzaren ardatz**. Ikasleak zuzendutako proiektuak bere prestakuntza-ibilbidea markatuko du. Metodologiak, bestalde, honako alderdiak biltzen ditu: kasuen azterketa, egoerei buruzko azterketa eta hausnarketa, informazioaren bilaketa nahiz eztabaida eta proiektuetan oinarritutako bestelako metodologiak. Hori guztia modalitate erdi-presentzialarekin (%30 aurrez aurrekoa eta %70 on-line).

### Egitura

Masterraren titulazioa lortzeko, ikasleak **60 ECTS** kreditu egin beharko ditu: 20 ECTS arlo komun derrigorrezkoetan; 20 ECTS masterraren bi ibilbideen artean aukeratuta; eta 20 ECTS praktikak eta master amaierako proiektuan.

### Antolaketa

Mariam Bilbatuak zuzenduko du master hau, berau Hezkuntza Zientzietan doktorea, HEZIk zuzendaria Mondragon Unibertsitatean eta HUHEZIk irakaslea. Ikastaroa, berriz, 2011ko urtarrilean hasiko da, 2011ko abendua arte. Kostea: **4.950 euro**.

